


produktu kimikoekin
istripua-intzidentea gertatuz
gero jarduteko plana

11

INFORMAZIO - GIDA



DEFINIZIOAK

Lan-istripua: langileei osasun-galera edo lesioak eragiten dizkien edozein gertaera ustekabeko eta nahi gabeko.

Intzidentea: pertsonen osasun-galerarik edo lesiorik eragin gabe, jabetzari, ekipamenduei, produktuei edo ingurumenari, etab. kalteak egin diezazkiokeen edozein gertaera ustekabeko eta nahi gabeko.

Jarduketa-plana: istripua/intzidentea gertatzen denean hartu beharreko arau orokorrak edo zehatzak.

HORRI DAGOZKION ARRISKU NAGUSIAK

ARRISKU KIMIKOA

- Gaien ezaugarri arriskutsuak ez ezagutzea.
- Identifikatu gabeko substantziak.
- Biltegiatze desegokiak, luzarokoak.
- Segurtasun-datuen fitxak ez edukitzea.
- Lan egiteko metodoak eta prozedurak ez ezagutzea.
- Produktu kimikoen ontziak zabalik edo gaizki itxita edukitzeagatik, aireztapen eskasagatik, xurgatzeko edo erauzteko ekipamenduak ez erabiltzeagatik edo oker erabiltzeagatik ingurumenean sortutako kutsadura.
- Laborategiko material desegokia edo kalitate txarrekoa erabiltzea.

ZIPRIZTINAK, PROIEKZIOAK, ERREDURAK

- Isurketak, jarioak.

SUTEA, EZTANDA

- Laborategiko aparatu eta instalazio konplexuek inolako gainbegirapenik gabe funtzionatzea.

LANEKO OHITURA TXARRAK.



PREBENTZIOA

NEURRI OROKORRAK

- **Lan egiteko metodoak eta prozedurak ezagutzea.**
- Sor daitezkeen **emergentzia-egoeretan** pentsatzea kasu bakoitzean **jarduteko metodoa** zein den alde zuzenetik ezagutzeko.
- Prozesuari ekin aurretik, ekipamendua eta materialak bildu, garbitu eta deskontaminatzeko behar diren materialak eta metodoa edukitzea, arreta berezia jarritz hustubideak eta haizebideak ez kutsatzeko.
- Produktu kimiko arriskutsuak erabiltzen diren leku batean jarria, eztanda edo sutea sortuz gero, ekipamendu egokia duten pertsonen bakoitzari egon behar dute bertan. Gainerakoek kanpora atera behar dute berehala.
- Sutean aurkako **alarmen eta ekipamendu automatikoen funtzionamendua** ezagutzea.
- Istripuren bat gertatuz gero, jo ezazu Laneko Osasun Zerbitzura (POU).

SOR LITEZKEEN EGOERAK

Egoera jakin batzuetan hartu beharreko neurriak azalduko ditugu ondorengo lerroetan, baina ez duzu ahaztu behar produktu bakoitzaren kasu zehatzean nola jokatu behar den berorren ezaugarriek adieraziko dutela, Segurtasun-datuen Fitxan deskribatuta.

● **Isurketak**

- Isurketarik edo jarioarik sortuz gero, **bizkor jokatu behar duzu**. Isuritako produktua berehala bildu, lurrundu baino lehen, alegia, bere segurtasun-datuen fitxan adierazten den bezala. Eta ondo itxita ongtzi batean gorde.
- Beharrezkoa ez den jendea kanpora atera behar duzu.
- **Produktuari dagokion norbera babesteko ekipamendua** erabili behar duzu, eskularruak, maskara, etab.

● **Egurats kutsatua: flasko bat haustea, errektibo bat isurtzea, gas batek ihes egitea, etab.**

- **Ireki leihoak eta itxi ateak.**
- **Jarri martxan bitrina**, pantaila zabal-zabalik duela.
- Noizbait aldameneko zerbitzuak erasanak gertatzen badira, ateak eta leihoak itxi behar dituztela jakinarazi behar diezu.

Kutsadura handia baldin bada, horiez gain honako jarraibide hauek bete behar dituzu:

- Dagoen larrialdiko sistema martxan jarri.
- **Lokaleko jendea kanpora atera.**
- Esku hartzeko taldeari jakitera eman, arrisku-material egokiaz (arnasteko babes-ekipamenduak, eskularruez, etab.) hornituta etor dadin.
- **Itxi garra duten aparatu guztiak**, produktu kutsatzailea hegazkorra eta sukoia baldin bada.
- **Ez utzi inori lokalean sartzen**, harik eta substantzia arriskutsuaren eguratseko kontzentrazioak arriskutsua izateari uzten dion arte.

● **Zauriak, ebakiak edo ziztadak.**

- Odolarekin edo bestelako jariakinekin ustekabea kontakturik izanez gero, kendu berehala eskularruak.
- **Garbitu** kontu handiz zauria.
- Jakinaraz iezaiozu Laneko Osasun Zerbitzuari (POU).

● **Erredura termikoak**

- **Garbitu** erasandako parteak ur hotz ugariarekin. Ez eman ezertxo ere larruazalean (ez pomadurik, ez koiperik, ez desinfektatzaileak).
- **Ez kendu larruazalari itsatsitako arropa.**
- Jo Laneko Osasun Zerbitzura (POU) edo Larrialdietara, erasandako azalera eta sakontasuna txikiak badira ere.



● **Begietako zipriztinak**

- **Garbitu ur askorekin** 15-20 minutuz.

● Joan Oftalmologiako Zerbitzura, Laneko Osasun Zerbitzura (POU) edo Larrialdietara ahalik eta lasterren, produktuaren etiketa edo segurtasun-datuen fitxa eramanez.

● **Larruazaleko edo arropako zipriztinak.**

Zipriztinak agerian dagoen larruazalera erori badira:

- **Garbitu ur askorekin** 10 edo 15 minutuz.

● Joan Laneko Osasun Zerbitzura (POU) edo Larrialdietara, produktuaren etiketa edo segurtasun-datuen fitxa eramanez.

Zipriztinak arropara erori badira:

- Aldatu arropa, edo hartu larrialdiko dutxa bat.

● **Intoxikazio digestiboa**

- Ken iezaiozu norbera babesteko ekipamendua.

● Eraman lehenbailehen istripua izan duena **irentsitako produktuaren etiketarekin edo segurtasun-datuen fitxarekin** Laneko Osasun Zerbitzura (POU) edo Larrialdietara.

● Ez eragin gorakorik istripua izan duenari, konbultsioak badauzka edo konortetik gabe badago. Ezta produktu korrosibo edo hegazkor bat denean ere.

● **Arriskutsua izan litekeen aerosol bat segurtasun-ganberatik kanpora isurtzea**

- **Ebakuatu berehala erasandako zona.**

● Jakinarazi aldi berean zerbitzuko arduradunari.

● **Ez utzi inori lokalean sartzen**, egokiro seinalatuz, gutxienez ordubetea, harik eta aerosola pausatzen den arte.

● Denbora hori igarotzen denean, deskontaminatu lokala.

● Joan Laneko Osasun Zerbitzura (POU).

● **lhes toxiko iraunkor baten ondoriozko zorabioak edo konorte-galera**

- Emergentziako ekipamendu egokia bildu (materiala eta pertsonak).

● Biktimarengana hurbildu aurretik babestu zeure burua ingurumenetik, arnas aparatu egoki batekin.

● Eraman istripua izan duena leku seguru batera eta utzi han ezker saiheatsaren gainean etzanda.

● **Lasaitu iezaiozu arropa edo estutu dezakeen guztia**, konortea galdu duen eta arnasa hartzen duen ala ez egiaztatuz.

● Ez eman janaririk, ez edaririk, ez arnasketa abiarazteko bestelako produkturik ere. Jo lehenbailehen Laneko Osasun Zerbitzura (POU) edo Larrialdietara.

● **Sutea**

- Emergentzia-planaren arabera jokatu.

● Jakinaren gainean izan beti non dauden zure lanpostutik hurbilen dauden **sutetik babesteko eta berori itzaltzeko baliabideak**.

● Ez ipini gauzarik sutetik babesteko eta berori itzaltzeko

baliabideen inguruan, horiek hartzeko bidea oztopatzeko moduan.

● Sutetik babesteko eta berori itzaltzeko baliabideetan anomaliaren bat topatzen baldin baduzu, emaiouzu horren berri zure gaineko arduradunari.

● Ez erabili iraunkorki luzagarririk eta multikonektorerik ("lapurrik").

● Lanaldia bukatzean, deskonektatu beti ekipamenduak.

● Saiatu produktu sukoi ugari ez biltegitratzen.

Mantendu gutxieneko biltegia.

